

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK hitzarmena sinatu du Txinako unibertsitate batekin, LEINN gradua Shangain emateko.

2016/06/22

Mondragon Team Academyk (MTA), MONDRAGON UNIBERTSITATEAren barruan 2008an sortutako nazioarteko ekintzailletza-sareak, sortu zeneko 8. urteurrena beteko du gaur. Hori dela-eta, aurrerapauso bat eman du nazioartean ezartzeko eta bere ekintzailletza- eta berrikuntza-eredua zabalitzeko apustuan.

Helburu horrekin, ekintzailletza-sare horrek lankidetzeta-hitzarmena sinatuko du gaur Txinako unibertsitate batekin, Shanghai International Universityrekin (SISU), LEINN hezkuntza-proiektua, Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako gradua, Shangain ere emateko. Gradu hori aitzindaria da Estatuan, eta munduko zenbait hiritan ematen du dagoeneko MONDRAGON UNIBERTSITATEAK.

Hala, hitzarmenaren arabera, SISUko ikasle txinatarrek Mondragon Team Academyko LEINN gradua ikasi ahal izango dute. Graduak, Europa osoan aitzindaria denak, ekintzailletzaren balioak bultzatu eta ikasle gazteei txertatzeko helburua du. Horretarako, erabiltzen duen hezkuntza-proiektuak erabat hausten ditu hazkuntzako estandar tradizionalak.

Hitzarmen hori mugarri garrantzitsua izango da Mondragon Team Academy nazioarteko ekintzailletza-sarearentzat. Gainera, gaur MTAREN 8. urteurrena izanik, hamabi herrialdeetako 300 lagun etorri dira Oñatira, nazioarteko sare osoaren izenean. Gonbidatu horiek parte hartuko dute ospakizun-ekitaldietan eta aurtengo 40 ikasleren graduazioan. LEINNeko hirugarren belaunaldia osatzen dute horiek.

Eredu tradizionala haustea

Mondragon Team Academyren helburua taldean ekitea da, balio kooperatiboak oinarri hartuta eta ikaskuntza aktiboaren bidez, "eginez ikastea", alegia. Horretarako, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK bultzaturiko nazioarteko sare horrek hezkuntza-berrikuntzako hiru programa ditu: LEINN gradua, MINN Masterra (Barne-ekintzailletzako eta Berrikuntza irekiko Nazioarteko Masterra) eta TEAMINN Masterra (Talde Ekintzaileen Trebatzaileak Prestatzeko Masterra).

Zehazki, gaur Shangaiko Nazioarteko Unibertsitatearekin sinaturiko hitzarmenari esker, Txinako hiri hartan ezarriko den LEINN graduaren eredua hiru zutabe horietan oinarrituta dago. Eredu horren arabera, ikasleak berak dira gidariak euren irakatsi eta ikasteko prozesuan. Hala, irakasten duen irakaslea desagertu eta ikasten duen ikaslea agertzen da; irakaslearen ordez "coach-a" dago, ikasleari prozesu osoan lagundu eta autoikaskuntzaren bidean gidatzen duena, haren zalantzak argituz. Eredu horretan, ohiko ebaluazioak eta ikasketa tradizionalak bidea ematen diote laneko lehen esperientzia errealarari: enpresa bat kudeatzeari. Izan ere, LEINNeko ikasleek benetako konpainia bat jarri behar dute martxan, eta horrek benetako bezeroak, fakturazioa eta helburuak izan behar ditu. Horregatik, azterketa eta notetan oinarritutako ebaluazioaren ordez, ikasleek fakturazioari lotutako helburuak bete eta bezeroak bisitatu behar dituzte. Enpresak porrot egiten badu, prozesuak porrot egingo du eta ikasleek ez dituzte eskatutako emaitzak gaudituko. Gainera, gradu horretan, nazioarteko esperientzia ezinbestekoa da ikasteko prozesuan. Horregatik, karrerak irauten duen lau urteetan, ikasleek "ekintzailletza-bidaia" deritzenak egin behar dituzte; horietan, hilabete bat edo bi eman behar dituzte atzerrian, Txinan, Indian, Finlandian eta Silicon Valleyn zer gertatzen den ikusi eta beren enpresa-proiektuak herrialde haietan garatu.

Balio horiek, funtsean, nagusi dira Mondragon Team Academyren beste bi hezkuntza-proiektuetan ere: Barne-ekintzailletzako Masterrean eta



Trebatzaileak Prestatzeko Masterrean. LEINN bezala, horiek ere funtsezko ardatz batzuen inguruan egituratzen dira: eginez ikastea, taldean ikastea, pentsamolde globala eta hobekuntza eta lana sarean, besteak beste.

Datu batzuk

LEINNeko lehen graduatuek ikasketak amaitu eta hiru urtera (laneratzeari buruzko inkestetan adituek graduatuen laneratzeko datuak aztertzeko gomendatzen duten epealdia da), graduatuen % 94,7 lanean ari da, % 57,8k ekiten jarraitzen du eta % 32 barne-ekintzailertzan dabil. Datu horiekin kontrajarrita, Espainiako ekintzailertzari buruzko datuak oso ezberdinak dira: gazteen % 55 langabezia dago eta graduatuen % 0,3 bakarrik da ekintzailea.

Gaur egun, MTA 11 berrikuntza-laboregiz osatuta dago; horiei MTA Labs deitzen zaie eta tokian tokiko bazkide estrategikoez garatzen dute hiri bakoitzean. Laboregi horietan 983 ekintzaile daude nazioarteko LEINN, MINN eta TEAMINN Master programak egiten. Hona hemen gaur egun dauden 11 MTA Lab guztiak: Irun, Oñati, Madril, Amsterdam, Bilbo, Bartzelona, Valentzia, Shangai, Pune, Queretaro eta Zaragoza (hiri horretan LEINN ematen hasiko da datorren urritik aurrera).

Ikasketa-plan honen arabera sortzen diren team-companien emaitza bikainek ospe ikusgarria lortu dute, ikasleek % 36 bere negozioa sortzen ari baita. Gaur egun, MTAk 983 talde-ekintzaile (teampreneurs) eta 73 talde-kooperatiba (team coop) ditu, belaunaldi, kultura, diziplina eta kokapen anitzekoak, berrikuntza sozialeko ekosistemetan (MTA Labs).